

Azaroak 11, igandea (Kursaal Auditoria, 19:00)

Luxemburgoko Orkestra Sinfonikoa

Gustavo Gimeno, zuzendaria

Vilde Frang, biolina

Egitaraua:

Nicht zu schnell, G. Mahler

Biolinerako kontzertua op. 61, L.v. Beethoven

Bosgarren sinfonia, P.I. Tchaikovsky

Dukerri Handiko orkestra Kursaalean izango da bere zuzendari titular berriarekin, Gustavo Gimeno valentziarrarekin, 2017ko Hamabostaldian izandako arrakastaren ostean. Musikari-zerrenda osatuz, Vilde Frang emakumezko biolinista birtuoso gazteak Beethovenen musikalan lirikoenetako bat joko du.

Sarrerak: 55 / 44 / 35 / 28 / 11 €

Prozedura:

- Interesdunek Kursaal Elkarguneko web orria bitarteko dela erosi beharko dute kontzerturako sarrera: www.kursaal.eus

- Behin sarrera erosita, interesdunek, **nahitaez**, euren autobuseko tokia erreserbatu beharko dute:

Zumaia: kulturetxea@zumaia.eus / 943 861056

Getaria: info@getariaturismo.eus / 943 140957

Zarautz: kultura@zarautz.eus / 943 005120

Orio: orioturismo@gmail.com / 943 835565

- Autobusa ordutegia, Zumaiaetik abiatuta, Urola Kostako lagunak jasotzeko, honako lekuetan egingo du geldialdia:

Zumaia: 17:40, zineetako autobus geltokia

Getaria: 17:50, autobus geltokia

Zarautz: 18:00, Batzoki aurreko autobus geltokia

Orio: 18:10, autobus geltokia

- Ordu Gaztea/Langabetuak: langabetuek eta 30 urtetik beherako interesdunek, sarrerak 3 euroko prezioan erosi ahal izango dituzte. Horretarako sarrera (autobuseko tokia bezalaxe) erreserbatzea

ezinbestekoa izango da (Zumaia: 943 861056 / Getaria: 943 140957 / Zarautz: 943 005120 / Orio: 943 835565). Behin beharrezko erreserbak eginda,

kontzertu/ikuskizuneko egunean bertan, interesduna Kursaaleko leihatilara gerturatu beharko da eta bere adina (Ordu Gaztea) edo lan egoera (Langabetuak) egiaztatu ondoren, sarrera ordaindu (sarrera hauen kokapena egun horretan leihatilan erabilgarri dauden sarreren arabera izango da).

- Izena emateko **epea** (autobusa/ Ordu Gaztea) azaroaren 5ean amaituko da.

- **Oharra:** Gutxienez 15 pertsonako talde bat ez bada osatzen, eskaintza bertan behera utziko dugu (Erositako sarreren dirua bueltatuko da hori gertatuz gero).